


info ▶ 'Informazioaren Gizartea' Kongresua

Ibarretxe: "Euskaltel sakonera kulturaleko proiektua da"

Aste honetan, Eusko Ikaskuntzaren (EI)-XIV. Kongresua ospatu da euskal hiriburu batzuetan. Egoitza bakarra izan beharrean, Baiona, Iruñea, Gasteiz, Donostia eta Bilbo telematikak lotuak egon dira Kongresuko hitzaldiak ziren bitartean. Hain zuzen ere, Informazioaren gizartea zen Kongresuaren izenburua eta etorriko den gizarte horren adibide praktikoa bat eskaini nahi zuen Elk lotura telematikoko horrekin. Bere gora-beherekin, baina sistemak funtzionatu.

Adituak, ikerlariak, enpresako jendea, Interneteko profesionalak... Tankera askotako pertsonak pasatu dira Kongresu honetatik. Horiekin batera, erakunde politikoetako ordezkariak ere izan dira, hala nola Miguel Sanz eta Jose Antonio Ardanza lehendakariak. Administrazioek auzi konplexu honi zein ikuspuntutatik begiratzen dioten ikusteko balio zuen, beraz, Kongresuak. Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde Juan Jose Ibarretxeren hitzaldia bereziki interesgarria izan zen. Gainera, EHUKo Gipuzkoako kanpuseko errektoreorde Jose Luis de la Cuestak aurkezpenean azaldu zuen bezala, "Ibarretxeren izena denon ahotan dago hurrengo Jaurlaritzaren osakera posiblea dela eta", eta horregatik ere bazuena interesa lehendakariordearen ikuspegiak.

Kablez hornituriko gizartea eta kultur nortasuna izan zen Ibarretxeren hitzaldia. Ez zuen, egiazki, kablez edo kultur nortasunaz bereziki asko hitz egin, iraultza teknologikoak dakartzan aldaketa orokorrez baizik, zentzu zabal batean. Aldaketa hori onartu beharra dagoela azpimarratu zuen Ibarretxek. "Aldaketak, askotan, oker ebiteazi-



Juan Jose Ibarretxe, Eusko Jaurlaritzako lehendakariordea.

na dela iruditu izan zaigu. Baina ikuspegi hori borrokatu behar dugu. Aldaketa, ongi barneratzen bada, aberasgarria da".

Aldaketa hau iraultza ere badela esan zuen, baina ez politikoa, teknologikoa baizik. Hala ere, "balio kulturalak eta eskema politikoak hankaz gora" jartzen ari direla gehitu zuen. Eta iraultzak onura ekonomikoak ekarriko dituela gehitu zuen, baina ez berdintasunezko egoera batean.

Administrazioak egoera honetan jokatu beharreko papera argitu gabe dagoela onartu zuen Ibarretxek. Ez dakitela eta erantzun bila dabilzala. Nolanahi ere, ildo batzuk markatu zituen. "Europar hartzen diren eraba-

kien interprete izan behar dugu. Ezin du euskal administrazioak irizpide desberdinetatik jo", esan zuen lehendakariordeak. Era berean, Jaurlaritzaren egintza handi eta sakonena EAEn telekomunikazioaren bigarren operadore izango den Euskaltel enpresari bultzakada ematea izan dela azpimarratu zuen Ibarretxek. "Euskaltelen proiektu honek sakonera politikoa eta kulturala du", esan zuen Ibarretxek.

Nazioarteko marko global berriari, informazioaren gizarte globalean, euskal nortasuna adierazteko modu eraginkorrenarena Euskaltel bidez irekiko dena izango dela eman zuen aditzera Ibarretxek. "Globalta-

sunean integratzea ezinbestekoa da. Adibidez, Europako diru batasunak armonizazio prozesu handi bat da, eta hor Euskadik badu tresna bat bere zerbitzura, kontzertu ekonomikoa eta bere politika fiskala diseinatzeko aukera". Ekonomian kontzertua eta ahalmen fiskala dagoen bezala, informazioaren gizartearen gauzatzean bigarren operadore hau, Euskaltel, izango da tresna baliotsuena, EAeko lehendakariordearen ustez. Euskaltel proiektu publiko gisa hasi zen, gero pribatizatu egin da, nahiz eta EAeko erakunde publikoek partizipazio bat baduten eta baldintza batzuk ezarri dizkioten sozietate honi.

Administrazioaren jokabidea bikoitza izan behar dela gehitu zuen, batetik "traktore" izan behar du tira egiteko, eta bestetik "oso zaila den zerbitzu" lortu: "Ikuspegi zabal eta globalak gureganatu eta aldi berean, gure nortasun propioa sakondu. Horretarako, presentzia ziurtatu du administrazioak bigarren operadore horretan, eta edukiak garatu.

Galderen txandan, Iruñetik egin zitzaion galdera Ibarretxeri (hau Donostian zegoen), ea euskarazko edukiak ziurtatzeko zer egingo zuen Jaurlaritzak. Ibarretxek oso gaineratik erantzun zuen: "Euskararen ikuspegitik ere ziurtatu behar dira edukiak, baina ez bakarrik euskarazkoak". Zein eratako mekanismo edo eduki zehatzak ezarriko diren ere ez zuen aipatu. Hori bai, Ibarretxe lehendakariordearen iritziz, "zerbitzu prestakuntza erakunde arrotzen esku uzten badugu kolonizazio pasiboa onartuko dugu".

▶ Eusko Ikaskuntzaren Kongresua
http://suse00.su.ehu.es

WEBGUNEAK
Eztabaidagunea eta Durangoko nobedadeak

Jalgi komunikazio-zerbitzariaren Interneteko leiho publikoan edukiak azaltzen hasi dira jada. Dagoeneko, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko, Euskal Kulturgintzako eta EUSKALDUNON EGUNKARIKO informazio orokorra aurki daiteke, eta zenbait eduki zehatz ere bai. Adibidez, Euskal Kulturgintzaren gunean, Elkar eta Ttartalo editorialek Durangoko azokan aurkeztuko dituzten nobedadeak topatuko dituzue. EGUNKARIAREN gunean berrikuntza bezala eztabaidagune bat dago, era honetako euskarazko lehena Interneten.

▶ Jalgi: zenbait eduki interesgarri
http://www.jalgi.com/egunkaria/eztabaida
http://www.jalgi.com/elkar
http://www.jalgi.com/tartalo

INFO
Argia-ren elkarrizketak

Argia astekariak bere webgunea ireki berri du eta baliabide interesgarri bat jarri du bertan: 1963-1996 urteak bitartean aldizkarian argitaratutako elkarrizketen bilduma. Informazio ondare aberats horrez gain, baliabide honek badu balio gehigarri oso interesgarria Interneteko komunitate euskaldunera begira. Hain zuzen ere, elkarrizketen datubasean bilaketak egiteko erabiltzen den tresna euskara ulertzen du. Hau da, zuk "abesbatza" sakatzen duzu, eta emaitzetan "abesbatzari", "abesbatzek" eta gainerako era deklinatuak azaltzen diren elkarrizketak ere agertuko zaizkizu. Hau da, bilatzeko hitzaren analisi morfologikoa egiten du tresnak, euskararen deklinabidea kontuan harturik. Halakorik ez da gertatzen Alta Vista bilatzaileak, adibidez, non "abesbatza" hitz zehatza besterik ez zenukeen aurkituko, ez gainerako formak.

▶ Argia astekaria
http://www.argia.com

Ametzagaña taldearen zerbitzaria

Argia astekariak baditu beste plan batzuk Internetera begira, Ametzagaña taldearen barruan sortu den Ametza zerbitzariaren baitan. Esate baterako, Euskal Kulturaren Urtekarian (urtarrilean kalean) Interneteko euskal helbideen gida argitaratuko dute. Online ere jarriko dute gida hori.

iritzia ▶ Andoni Sagarna

Jalgiren zerbitzuak

'Jakín' aldizkariaren azken alea (102.a) informazioaren autobideei dedikatua dago, eta gaiaren inguruko lau artikulua edo analisi sakon dakartza. Jose Manuel Barrutia Ibermatica enpresaren kontsultorea, Ixa taldeko informatikari euskaldunak, Luis Fernandez kazetaria (atal honen arduraduna) eta Andoni Sagarna Jalgi komunikazio zerbitzari arduraduna dira egileak. Sagar-

naren testutik pasarte bat aukeratu dugu.

(...) Internet zerbitzuen hornitzaile izango da Jalgi. Zerbitzu hauen artean honako hauek izango dira nagusi: posta elektronikoa eta Interneteko sarbidea mugarik gabe, harpidedun egiten diren guztientzat, eta web-orrrien prestakuntza, webguneentzako edo web-zerbitzari-entzako ostaturia, tarifa baten

arabera, World Wide Web-en presentzia izan nahi dutenentzat.

Alegia, edonork posta elektronikoa eta Interneteko nabigazioa erabili nahi baditu, urteko harpidetza bat ordainduko du. Hau hornitzaile askok (gehiegik) ematen duten zerbitzua da, baina gure kasuan eskaintza bereziak egiten dituzten dendak, dokumentazio-zerbitzuak, etab. ere aurkituko ditu harpidedunak. Jalgi-ko harpidedun ez den Internet-eko erabiltzaile bat Jalgi-ren webgunera sartzen denean Jalgi-ko partaideen informazioa eta eskaintzak aurkituko

ditu, baina ez ditu harpidedunak izango dituen hainbat abantaila izango.

(...) Jalgik, pixkanaka, bere harpidedunen interesen arabera munduan dagoen informazioari interesgarria, bilatzen ibili gabe, eguneratuta, eskaini behar die euskaraz. Horren arrunta ez dena, galderak euskaraz eginez aurkitu behar luke erabiltzaile euskaldunak, eta ezarian ezarian Euskal Entziklopedia Nagusia euskarazko altxor entziklopediko orokorra, munduaren eta geure errealitatearen berri modu integratuan emango diona ere bai.